2022 MAR. 11

Sastrakaz jositako bidaia ezinezkoa

Diziplina anitzeko lana da «Sastraka/Maleza» (Erein), eta Pello Lizarralde idazlearen testu narratibo labur batean du sorrera. Bidaia bat proposatzen du, heriotzaren kontzientzia handitzen doan neurrian iraganera itzultzeko maiz egiten den bidearena. Ezinezkoa ei dena. Horietan oinarrituz sortu zituen ondoren margolanak Jose Ignacio Agorretak eta Imanol Ubedak jarraian hamabi kantu konposatu. Imanol Rayok itxi zuen zirkulua argazki bilduma batekin.

Oihane LARRETXEA
DONOSTIA

Diziplina anitzeko lana da "Sastraka/Maleza" (Erein), su txikian landua. Modu harmoniatsuan uztartzen ditu narratiba, margoa, musika eta argazkilaritza, eta hari ikusezin batek batzen ditu denak: proiektu berezi hau ez litzateke ulertuko, ezta ziur aski posible izango ere, lau egileen artean dagoen adiskidetasuna existituko ez balitz.

Pello Lizarralde (Zumarraga, 1956) idazlearen testu batean dago guztiaren abiapuntua. 2019. urtean bidali zion Jose Ignacio Agorreta (Iruñea, 1963) margolariari testua, hark ondoren modu librean sor zezan.

Hamabi ataletan banatutako testu laburra «ezinezko bidaia» gisa deskribatu zuen idazleak berak atzo Donostian egin zen aurkezpenean. «Idatzi berritan ez nekien zer idatzia nuen, eta gerora ohartu nintzen, hitz gutxitan esanda, ezinezko bidaia bat dela. Eta bidaia hau ezinezkoa da, hain zuzen ere, ilusio batek eragindako bidaia bat delako. Gaztetan oroitzapenak bakanak etortzen dira eta asko minik egin gabe etortzen dira», azaldu zuen.

Pertzepzioak aldatu egiten dira, ordea, denbora igarotzen den neurrian. «Urteak bete ahala oroitzapen horiek trumilka etortzen dira eta ilusio bat pentsarazten digute, garai batekoak berritu egin daitezkeela eta gozoak direla, baina gozoak dira iraganekoak direlako. Bidaia hori hasten dugunean ilusio horrek eraginda aurreikuspen batzuk egiten ditugu, baina bidaiaren buruan konturatzen gara dezepzioa eta mamuak besterik ez daudela». Orduan ohartzen gara «bidaia horrek ez zuela merezi ziur aski ere oinazea baino ez digulako eragin».

Carlos Pujol idazle katalanaren hitz batzuk gogora ekarri zituen Lizarraldek, zer sentitzen duen laburbiltzeko: «Ez dago inoiz inora itzultzerik, baina itzuli egin behar da hori jakiteko».

Jose Ignacio Agorretak gogotsu jaso zuen testua, baina "niretzat idatzi du" hori erantzukizun handia zen. «Egin zidan mailako eskaintzari zegokion moduan erantzun nahi nion margoarekin», esan zuen. Zalantzak nahiko bizkor uxatu zituen, ordea. «Egunero bezala etxe inguruan egiten nuen paseo hartan, ordura arte ezer iradokitzen ez zidan paseo hartan, margolanak bata bestearen atzetik irudikatzen hasi nintzen bere testua irakurri ondoren», oroitu zuen.

Letra eta margoaren ostean...

Sei edo zazpi margolan eginda zituela jo zuen Imanol Ubedarengana. Kontatu duenez, atal bakoitzeko (hamabi) kantu bat sortu dute. Sastrakak. Batetik hamabira. Ez dute izenbururik, eta testu narratiboaren segida berbera erreproduzitu dute. Ubedarentzat ere erronka izan da lan egiteko metodologia aldarazi diolako. «Normalean kantak letretatik edo poemetatik abiatuta idazten ditugu, baina kasu honetan Pelloren narraziotik abiatu gara, testu narratibo batetik hartu ditugu kantuetako esaldiak, pasarteak, eta hori gauza berria da».

«Hau berez ez zegoen kantatzeko idatzia; horregatik, irakurri nuenean ezintasun handi bat sentitu nuen, hor ez nuen kanturik ikusten», onartu zuen. Pare bat esaldi apuntatu zituen, «lehenengoa eta azkena», esan zuen barrez, eta horrekin egin zituen sastraka 1 eta 12. Obra guztia biltzen duen liburuan bertan txertatuta dator espresuki ondu duen diskoa. «Ez da modu errazena izan, baina bai izan dela oso jakingarria, zeren kantak egiteko beste modu bat piztu dugu». Ubeda pluralean mintzatu zen. «Nire izena dator, baina egokiagoa da Don Inorrez aipatzea».

Imanol Rayo da laugarren hanka. Bere ohiko bide artistikoa, zinema, alde batera utzi, eta beste pasioa praktikatu ahal izan du: argazkilaritza. «Iraganera itzultzeko ezintasunaz ari dela jabetuta (...), Pelloren testuekiko leial jokatuz baina forman haietatik erabat aldenduko zen zerbait egitea pentsatu nuen», kontatu zuen arbizuarrak.

«Inor ez da kalterik gabe ateratzen oroitzapen batetik», dio testuan esaldi batek. Eta konturatu zen horrexek bat egiten zuela garai hartan bere aitaren aldeko familiaren baitan zuten auzi batekin: Almaden (Ciudad Real) herri txikian familiak zuen etxearekin zer egin erabakitzea. Uda asko han pasatakoa da eta aspaldiko oroitzapen bat baino ez dira meatze tradizioak utzitako garai oparoak. Gaur egun, ahanzturan murgilduta dago.

Memoria hura duintzea eta ohoratzea bururatu zitzaion, eta horretarako herrian zeharreko argazki ibilbide bat proposatzen du amonaren etxetik abiatu eta kanpoaldean dagoen jauregi neoklasiko bateraino. Argazki saioan bertan jasotako soinuak disko batean bildu ditu Rayok, eta hau ere liburuan txertatuta dator.

HIRIBURUETAKO BIRA

«Sastraka/Maleza»-tik abiatuta sortu den eduki guztia Iruñean (martxoan), Gasteizen (maiatzean), Donostian (udazkenean) eta Bilbon (2023ko urtarrilean) egongo da ikusgai antolatu den erakusketa bira txikian. Imanol Ubedak kontzertu bana eskainiko du diskoa aurkezteko.

PUBLIZITATEA

Klikatuenak

Por qué buena parte de la izquierda mundial apoya a Putin

Basta ya de manipulación y de guerras

China, llave o cerrojo de la crisis bélica en Ucrania

El largo brazo de la OTAN

LA REIVINDICACIÓN FEMINISTA RECUPERA LA CALLE DE FORMA MASIVA

PUBLIZITATEA

Bilbotarra
Donostiarra
Gasteiztarra
Iruindarra

Txirrindularitza
Arrauna
Motoak
Herri Kirolak
Errugbia

Iritzi Blogak

Jaso gure newsletterra

Jakin beharreko albisteak besterik ez dizugu bidaliko. Spamik gabe.

Emaila

BIDALI

:irratia ZUZENEAN

Nor gara | Harremanetarako | Lege oharra | Publizitatea | RSS

:IRRATIA :BIDAIARI GARA 7K GAUR8 MEDIABASK KAZETA 11TB